DENBORA NEURTZEN

GOGORATU, PENTSATU, APLIKATU...

Urteak 365 egun ditu. Lau urterik behin, egun bat gehitzen da otsailean; orduan, bisurtea dela esaten da eta 366 egun ditu.

Egunak 24 ordu ditu eta 12 orduko bi ziklotan banatzen da.



1. Zer ordu da erloju bakoitzean?



2. Aukeratu erloju analogikoak (orratzetako) adierazten duen ordua digitalean.



DENBORA NEURTZEN

3. Aukeratu erloju bakoitzak adierazten duen ordua.

Zeinek adierazten du ARRATSALDEKO BOSTAK ETA LAURDEN?



Zeinek adierazten du GOIZEKO ZAZPI ETA ERDIAK?



Zeinek adierazten du GAUEKO HAMABIAK PUNTUAN?



Zeinek adierazten du ARRATSALDEKO LAURAK ETA LAURDEN?



DENBORA NEURTZEN

4. Adierazi erloju digitalean zein ordutan hasten den eta amaitzen den jarduera bakoitza. Ondoren, adierazi zenbateko iraupena duen.

-Asteazkenero ingeleseko klasera noa arratsaldeko 6etatik 8etara. Zenbat ordu egoten naiz klasean?

Hasi

Bukatu

Klasea ordu irauten du.

-Ikastolara goizeko 9etan noa eta arratsaldeko lau eta erdietan bueltatzen naiz etxera. Zenbat denbora nago ikastolan egunero?

Hasi

Bukatu

Ikastolan ordu eta minutu nago.

-Anderren urtetbetetzearen ospakizuna arratsaldeko bostak eta laurdenetan hasi eta gaueko bederatzietan amaituko da. Zenbat denbora egongo gara jaialdian?

Hasi

Bukatu

Ospakizuna ordu eta minutu iraungo du.

-Normalean gaueko hamarretan oheratzen naiz eta goizeko zortzietan esnatzen naiz. Zenbat denbora egiten dut lo egunero?

Oheratu

Esnatu

Lo egiten dut ordu egunero.